



## **HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN EGITURA ETA EGINKIZUNAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKO LEGEZKOTASUN TXOSTENA**

---

**22/2021 LT - LGAKZ**

### **I.- AURREKARIAK**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Hautaketa Zerbitzuak goian aipatutako dekretu-proiektuari buruzko legezketasun txostena eskatu du. Espedientean honako dokumentu hauek daude:

- Txosten ekonomikoa
- Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren Agindua, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen dekretua aldatzeko prestatzeko prozedurari hasiera ematekoa.
- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak ezartzen dituen dekretu-proiektua.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren Agindua, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen dekretu-proiektuari aldez aurreko onarpena ematen diona.
- Dekretu-proiektuari buruzko memoria.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen txosten juridikoa, Hautaketa Zerbitzuko aholkulari juridikoak egina.
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Izapidetzaren memoria, Hautaketa Zerbitzuko aholkulari juridikoak egina.

Oraingo gure legezkotasun txosten hau igortzen dugu jarraian adierazten diren artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz:

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikuluan.
- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 eta 11.2 a) artikuluan.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren 7.1.i) artikuluan.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 8/2021 Dekretuaren 15.1 c) artikuluan.

## II.- DEKRETU-PROIEKTUAREN AZTERKETA

### A). Eskumenak

Gauzatzen den eskumenaren lege-euskarria Autonomia Estatutuko 10.2 artikuluan xedatutakotik eratorrikoa da, artikulua horrek Euskal Autonomia Erkidegoari autogobernatzeko ahalmena ematen baitio Administrazio Autonomikoa osatzen duten organo, administrazio-unitate edo erakundeak sortu, aldatu edo kentzeko; betiere, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan aipatutako herri-administrazioen antolaketari eta funtzionamenduaren araudi juridikoaren oinarriak errespetatuz.

Ilido horretan, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, lehendakariari dagokio sailak sortzea edo desagertzea dakarten dekretuak ematea, betiere gastu publikoa handitzea ez badakarte, bai eta haien izendapenean edo eskumen-banaketan edozein aldaketa egitea ere. Horretaz gain, Lege horren 26.2 artikuluan adierazten du sailburuei dagokiela lehendakariari proposatzea, onar dezan, bakoitzaren sailaren egitura eta antolamendua. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagokionez, Gobernantza

Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 8/2021 Dekretuaren 2.3 artikulua sail honi atxikitzen dio administrazio-erakunde autonomo hori, Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren bidez. Beraz, Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuari dagokio proposatzea, Jaurlaritzak onar dezan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen Dekretua.

Era berean, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, azken xedapenetako lehenengoan ezartzen du sailburuek, Jaurlaritzaren Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Lehendakariari aurkeztuko dizkiotela, 2020ko abenduaren 31 baino lehen, bakoitzaren saileko erregelamendu organikoen proiektuak, onarpena eman diezaien. Sailei esleitutako jardun-arlo bakoitzarentzat Jaurlaritzaren programan jasotako helburuei eta programa hori argitu duten irizpideei egokituko zaizkie proiektuak.

Kontuan hartu behar da, gainera, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak berak, azken xedapenetatik lehenengoaren 2. puntuan, diskrezionalitate teknikoaren tarte hori mugatzeko aurreikuspen bat duela, sailen erregelamendu organikoak egitean jarraitu beharreko antolamendu-irizpide batzuk zerrendatzen baititu, eta horien balorazioa Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak egin du bere txostenean.

## **B) Dekretua bideratzeko prozedura**

Xedapen orokorra denez, dekretu-proiektuari abenduaren 3ko 3/2008 Legea aplikatu behar zaio, xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Espedientea ikusita, dekretu-proiektuak 3/2008 Legean ezarritakoa betetzen duela egiaztatu da, honako dokumentu hauek biltzen baititu:

- Prozedura hasteko agindua: 5 artikulua
- Aldez aurreko onarpena: 7 artikulua
- Memoria: 10.2. artikulua

- Memoria ekonomikoa: 10.3 artikulua
- Nahitaezko txostenak: 11 artikulua

Kasu honetan, antolamendu-izaerako araua denez, aipatutako legearen 8.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidetik salbuetsita dago.

Prozedurak eskatzen dituen txosten guztiak dauzkala kontuan hartuta, Zuzendaritza honen txostenak ez ditu ekarriko edo errepikatuko txosten horiek egin dituzten organo espezializatuak landutako alderdiak, salbu eta horiekin desadostasunik badu.

#### **D) Dekretu-proiektuaren edukia**

Dekretu-proiektu honen helburu eta xedea da urriaren 16ko 200/2012 Dekretu aldatzea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituena. Aldaketak dakar beste zerbitzu bat sortzea, Euskara Zuzendariordearen barruan, terminologiaren inguruko konpetentzia eta funtzio guztiei arreta berezia eta espezializatu emango zaiela bermatzeko. Izan ere, terminologiaren esparruan konpetentzia eta funtzioak izan dituzten unitate administratiboek – Hizkuntza Politikan konpetentzia izan duen zerbitzuak eta HAEEak- aurreko legegintzaldian aztertu zituzten Eusko Jaurlaritzaren barruan terminologiaren zerikusia duten funtzioen antolaketa eta egitura. Ondorioztatu zuten terminologia, ahalik eta egokien jorratzeko, eta behar duen arreta berezitua emateko, guztiz beharrezkoa zela esparru horren inguruko funtzio guztiak organo bakar bati atxikitzea.

Ildo horretan, eta 16/1983 Legearen 4. artikulua erakunde honi atxikitzen zizkion xedeen artean *“Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legean agintzen dena egiteratuz, euskara Herri Arduralaritzan sarraraztea, hedatzea, erabiltzea eta arauzkotzea, baita arduralaritza-hizkuntza zehaztea ere”* zegoela kontuan izanda, ulertu zen egokiena zela HAEEari atxikitzea Eusko Jaurlaritzak terminologiaren esparruan dituen konpetentziak.

Beraz, beharrezko ikusi da HAEEaren esku jartzea Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak terminologian zituen konpetentziak, eta

baita uztailaren 28ko 99/2020 Dekretua eman arte Euskara Aholku Batzordea zenak zituen kompetentziak ere; beti ere HAEEak bere sorreratik gaur arte izan dituen kompetentziak ahaztu gabe.

Dekretu-proiektuari dagokionez, azalpen-zatia, arauaren helburua eta berau onartzeko arrazoiak azaltzen dituen, 23 artikulua, indargabetze-xedapena eta azken xedapena ditu. Dekretu horren eta 200/2012 Dekretuaren arteko ezberdintasunak ez dira handiak, artikulua gehienek edukari eusten baitio dekretu berriak. Hala ere, aldaketa batzuk badira.

Kudeaketako administrazio-egitura dagokionez, 7.1 c) artikuluan, zerbitzu berri bat erantzi da, Terminologia Zerbitzua, alegia. Zerbitzu berri horren sorrera 15.3 artikuluan ere jasota dago. Eta artikulua berri bat, hamazortzigarrena, gehitu da zerbitzu honen eginkizunak zehazteko. Lehen esan bezala Terminologia Zerbitzuak bereganatzen ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak terminologia arloan zituen egitekoak. Honi dagokionez, aipatu behar da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoari buruzko dekretu berriak desagertu egin direla lehen Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak terminologiaren arloan zituen eginkizunak.

Halaber Terminologia Zerbitzuak bereganatzen ditu Euskararen Aholku Batzordeari buruzko 176/2007 Dekretuak Terminologiako Batzordeari ezartzen zizkion egitekoak. Aipatu behar da 176/2007 Dekretua berriaz baliogabetu zuela uztailaren 28ko 99/2020 Dekretuak. Honetaz gain, azken dekretu honek ez ditu jasotzen 178/2007 Dekretuak zehazten zituen egitekoak terminologiaren alorrean.

Bestalde, Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizaziorako Zerbitzuaren eginkizunak aldatzen ez diren arren, dekretu-proiektuaren 17. artikulua beste era batera idatzi da, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak proposatuta.

Azkenik, adierazi behar da zerbitzu berria sortzeak izan ditzakeen ondorioak, bai langileei dagokienez, bai aurrekontuei dagokienez, behar bezala aztertu direla espedientean dauden beste dokumentu batzuetan.

### III. ONDORIOA

Horrenbestez, aldeko irizpena ematen diogu legezketasun azterketara aurkeztu diguten dekretu proiektuari.

Hori da igortzen dudan txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut.